

A Z P E I T I A

Hedadura: 70'1 Km2

Jaiak:

- Herrikoak: Urtarrilaren 20an, Sebastian
- Loiolako Ignazio Deuna: Uztailaren 31an.

Biztanlegoa: 13.901 biztanle

- Izarraitz Mendia: Pizkunde aurreko igan-dea.
- Aste Santua: Ostiral Santuan prozesio garrantzitsua.

Izen bereko Auzi-Barruti burua, Urola ibaiaren ezker aldeko ordeka batean lekutzen da Izarraitz mendilerroean. Iparretik Deba eta Zestuarekin mugakidetzen du, hegoan Beizama, Ezkio-Itsaso, Zumarraga eta Beasainekin; Errezilekin ekialdetik eta Azkoitiarekin mendebaldetik.

Azpeitiko hiribildua Azkoitia jaiotzeaz batera sortu zen, geografia-unitate beraren partaide izanik: Iraurgi ibarra. Bailara honetan antzin-antzinatik lekutu zen jendea eta errege-arreta jaso zuen, behar bada ingurune honetan kokaturiko jaun-feudalak bereganatzen ari ziren nagusitasuna zela eta. Egoera honek gaztelako koroak zituen asmoak gainbehera ekarri zituen, lurraldean monarkiaren boterea sendotzera zuzenduak.

Fundaziorako abantaila Fernando IV.ak 1310ean eman zuen, Iraurgiko Garmendia hiribildua sortu zuelarik. Hiribildua lekutzeko hartu ziren lursailak Ozaka eta Iribarreña oinetxeetako jabeek eman zituzten. Halaz ere, hurrengo urtean errege berak, lautadan Iraurgiko Salvatierra izeneko hiribildua sortuz beste agiri bat luzatu zuen, Sorasuko eliz-monastegia eman zuelarik -hasiera batean tenpeldarrena izan zen baina hauek desagertu ondoren koroak berreskuratu egin zuen-, eta monastegiaz batera honi zegozkien mendi, iturri, ondasun, soro eta gainerako eskubide guztiak. Bestelako zerga gabezi eta irabaziez gain, Gasteizko Forua eman zitzaion.


Hautatu zen kokagunea balio estrategiko handienetakoa zen, Oria eta Debako mendarteetarako sarrerabide garrantzizkoak iragaiten ziren hainbat ibai eta errekaen elkargunea bait zen. Urolako ibarrak, bere erzetan biztanlegunea eraiki zuelarik, ibaiaren pare-parean zihoan igarobidea kontrol-



Soreasuko San Sebastian parrokia-Eliza.

petzea bideratzen zion, denborak aurrera egin ahala Errege Bide bilakatuko zena, Azkoitia (1324), Zumaia (1347) eta Urretxuko Villarreal (1383) hiribilduak sortzearen ondorio. Errepide hau gainera, Alfonso XI. erregeak aginduta Arrasate eta Getaria artean bidaiatzen zuten bidaiariak erabiliko duten bidea izango da.

Errezil eta Urrestillarekiko lotunea ere, izen bereko erreka jarraiki, oso antzinatik gauzatu zen, XVI. mendean eraikitako Umabe Zubi dotoreak halaxe adierazten duen legez (17-60).



Goiaz eta Azpeitia artean Urraki gailurretik behera etorrita, herriak duen izaera estrategikoa garbi-garbi erakusten duen ikuspegiak ikus daiteke.

Sortu zenetik epe laburrera, Azpeitiko historia zuztarretik markatuko duten gertakariak hasiko dira: ibarreko hondakin feudalek, Ahaide Nagusien bitartez, hiribilduetako biztanleen aurkako neurriak hartuko dituzte, hiribilduek lortutako autonomiak gutxituriko abantailak berreskuratuz nahiz; hiribilduek gizakia askea eta erregearen babespekoa izatea ekarri zuten.

Gatazkak beste bide batzuetan urratu zituen, banderizoen arteko guduaz ezagutzen dena. Liskar hauek bi leinuk ordezkatu zituzten, Ganboatarrenak eta Oñaztarrenak. Sendi honen orubea Azpeitiko udalerrian lekutzen da, gaur egun garai haiek gogora ekartzeko dizkigun monumentu multzoa gorde delarik.

Enrique IV. Erregeak XV. mende erdi aldera Ahaide Nagusiak zigortu zituen. Erregeak hauek zenbait Andaluziako lurretara ere erbesteratu zituen, liskarrari amaiera emanez. Hauek, itzuli zirenean beren etxeak berregin zituzten erbestearen ezagututako arkitektura ezaugarriak erantsiaz. Honenbestez, mudejar **estiloa** ekartzen da, adreiluaren erabilera oinarritzen zena, herri honek testigantza bikainak gorde dituelarik.

Feudoen gatazkari gaina hartu zitzaizolarik, herriak gorakada aldiari ekin zion, Europa eta portu amerikarrekiko merkataritzan oinarrituaz. Azpeitiak burni kopurua itzelak sortzen zituen burdinola ugari zuen, eta egoera honek, bestelako jarduerak burutzeko bide eman zion. Faktore eragile hauek gain, korregidorea bere audientziarekin eta Diputazioa, txandaka, lekutu ohi ziren Anaigoko lau herrietako bat izateko pribilegioa du.

1841ean izen bereko auzi-barrutiaren buru izendatua izatea gaineratu behar zaio aurrez esandako guztia.

Inguru honetan aztarnarik handien utzi duen leinua Loiolatarrena da zalantzarik gabe. Loiolako Ignazio mundu osoan ospe



Antxieta etxea.



Soreasuko San Sebastian elizaren barrenaldea.

itzeleko gizona, oinetxe honetakoa da. Familiako dorretxean sortu zen, Enrique IV.aren agindua jarraiki berregin beharra izan ondoren eta idanik egoitzarako jauregi izaera hartuta.

1681ean Mariana de Austria Andereari eman zitzaizkion lur-etxeak Jesusen Lagundiko basilika nagusia eraiki zezaten. Gorabeheraz jositako bizialdi baten ondoan, Gipuzkoak bere onspena erakutsi dio orain hamarkada batzuz geroztik, honen adierazgarri bikain ditugularik "Loiola 91" izenpean ospatutako urtehurrenako ekintzak.

+ + +

Azal-azaletik adierazi zaigun ibilbide honek bere ordaina eraikitako multzoan du. Industri hedapenak herriaren itxura eta bizimodua sakon-sakonetik aldatu baditu ere, ingurunean ere eraginik izan duelarik, iraganaren aztarnak tinko dirau udalerriko hainbat tokitan. Aipatzekoa da hemen, San Ignazio jai ezagunen bitartez zezenketak izan duen iraupena.

HIRIGUNE HISTORIKOA



Hirigune historikoak etaroko herriak betetzen zuten esparrua eta Magdalena eta San Agustín auzoak besarkatzen ditu.

Jatorrizko hiri-planoak almendra eitea du. Hiru kale ditu: Elizkale, Enparan eta Erdiko kale, kantoi bat eta bi plaza; sarrerata-riak desagertu egin dira.

Elizkale eta Enparan kaleak ilargi erdi modura lekutzen dira, zuzen-zuzen datorren kale nagusia -Erdiko Kale- beren baitan bilduaz. Honen buruan elkartzen dira hiruk, irtera-atarien parean bi plazatzko egin direla. Hauen ondoan sortu ziren auzorik nagusienak. Egituraketa hau zeharkako kantoi batek borobiltzen du, eliza Enparango zubiarekin



Magdalena basiliza.

uzturtuaz. Honek ere bi muturretan sarrera-atari bana zuen.

■ Soreasuko San Sebastian Eliza (*2)

Eliza kanpo aldean lekutzen da, defentsarako harresia oraindik trinkoagoa egina.

Azpeitiko Parroki-Eliza jatorrian tenpel-darren monastegia izan zela uste da. Herria eraiki zela, kokagune garrantzitsua bete zuen, ez arkitektura alderdiari dagokionez soilik. Berrikuntza eta zabaltze lanak XVI. mendean burutu ziren, "euskal gotikoa" delakoaren sailean barne-sartuko litzatekeen zutabez osatutako neurri ederretako tenplua dugularik.

XVIII.. mendean portada platereskoari Ventura Rodriguez delako etxegileak diseinaturiko eta Fernando Ibero maixu azpeitiarrak gauzaturiko arkupea ezarri zitzaion. Kanpandorra da, txapitel politak bukatzen duela, elizak duen testigantzarik zaharrena, ertarokoa. Defentsarako balioa izana behar zuen. Aldare Nagusiko erretaula barrokoa ezezik, bertako onibarren artean aipagarriak dira Zurbano Apezpikuaren eta Nicolas Saez de Elola konkistatzailearen hilobiak. Koru azpian eta burnizko hesi barroko handi baten babespean, Loiolako Iñigo bataiatu zuten bataiarria dago.


Elizak eremu zabal txiki bat du sarrera ondoan. Honantz begira lekutu dira hainbat etxesail, horien artean Antxietarena nabarmen.

■ Antxieta Etxea (*3)

Juan Antxieta, Errege katolikoaren musikari zenak 1507 aldera eman zuen eraikitzeke agindu. Etxe honek fatxada du aipagarriena, mudejar estiloaren eredu. Aldi ugarietan egin da, eraikuntzarako erabilitako materialeak txandakatuz, harria behe soilaruan eta adreilua gainerakoan; edergarriek gainera Gipuzkoan bakarria den eraketa sistema azaltzen digute.

■ Abitaingo Iturriak (*1)

Elizatik gertu eta harresizko itxituraren ertzean udal-garbilekua lekutzen da, Abitaingo iturri publikoekin batean. 1842an egin zituzten eta estilo neoklasikoari dagozkio. Orain gutxi berrituak izan dira.



Santa Klara Komentua.

■ Basozabal Etxea (*9)

Jauregi hiritar hau herriko eraikuntza zibiletan zaharrena dugu, XV. mendekoa.

Fatxada ikaragarri xumea du, portadako arkuak arduraz egindako eraikuntza dela erakusten badu ere.

Barren-patio aparta du eta errekarantz begira dagoen fatxada irekiko barne-bideak osatuz, arkuteria ederrak ditu.

■ Hasiera-hasierako eremuan, herrigunea gorputzen duten etxe apal ugarietz gain, badira aipamenik merezi duten bestelako eraikuntzak ere, udaletxe zaharra (*6) esate baterako, XVI. mende hasieran eraiki zena, Madrazo etxea (*10) edota Elizkaleko 1 zenbakia, fatxada plateresko ederrekoa.

AUZUNEAK

■ Magdalena

Magdalena auzuneak Zumaiarako bidearen inguruneak hartzen ditu. Erreferentzi-guneak beseliza (17-62) eta Magdalenaren ospitalea (17-61) dira. Baseliza iadanik XIV. mendez geroztik azaltzen da agiri-papere-tan, egungo etxea askoz ere berriagoa den arren. Aipamen bera egin dakiok Ospitaleari, herriko gaiso, gabetu eta ondore-gabeak ezezik, bide hauetan zehar igaro ohi ziren



Abitaingo garbilekua.

erromesak ere hartzera emana. Bertan gogotik lan egin zuen Ignazio Deunak, osasun arazoak zirela eta Paristik **bueltan** Azpeitira itzuli behar izan zuenean.

● **SanAgustin**

Azpeitirako irteran lekturik dagoen goiko auzunea, Arzubia zubi inguruan, ezarian ezarian **hazj** egin zen, ondoko merkatalbideak eragiten zuen joan-etorriaz baliatuaz.

Bertan lekutu zen XVI. mendean sortutako Agustindarren komentua. Bazen **Domini**karrak bizi ziren beste komentu bat, 1800. urte aldera bertan behera utzi zena.

Auzune hau Plaza Nagusia egiteaz batera, behin-betiko hirigunearen hiri-egituraketan guztiz barne-hartuageratu zen.

■ Plaza Nagusia

Gaur egun erakusten duen itxura Udaletxea lekutzen den arkupeturiko enparantza handiak eta mende hasierako musika-kiosko politak ematen diote. Enparantza XVIII-XIX. mendeetan zehar tajutu zen, herrialdeko eremu publikoek izan ohi zuten egituraketa berbera jarraiki, hauetan arkupea zelarik ezaugarri nabarmenena. Udaletxea, Agustin Deunaren monastegi gainean eraiki zuten eta oraindik **eliza** bertan gordetzen da, kanpandorra **-kanpai** eta guzti- garbi asko bereizten delarik.

Altuna etxeak (*5)borobiltzen du multzo hau. Fatxadaren azken solairuak, erronbo zerraginez osatzen den egituraketa bitartez, mudejar estiloa dakarkigu gogoan, Iraurgiko bailara honetan hainbeste etxe ereduak utzi dizkiguna.

● **Enparan auzunea**

Ibaiaz bestaldera, herriguneari ederki egokitzen zaiola, Enparan dorretxea (*7) eta Frantziskotarren komentua (*8) lekutzen dira.

Enparango dorrea 1320an eraiki zen ibaiaren uberatako baten gaineko kontrolpea izateko modu **gisara**. 1457an erret aginduaren ondorenak paraitu zituen eta horrenbestez, **izaera** militarra galdu beharrean gertatu zen. 1760an alboetako atalak erantsi zitzaizkion.

Enparango Jauregi parean lekutzen da frantziskotarren komentua. Gipuzkoako monastegirik gehien antzera XVI. mendean eraiki zen.



Udaletxea.



Loiola dorretxea.

UDALERRIA

► **Loiola**

Beste erijio-saii anitzen antzera, Loiolak ere handitasuna du ezaugarri adierazgarrien. Santutegiak estalgarri sekulako kupula du, lorategi ederrek eta plaza zabal **handi** batek inguratzen dutela, barroko garaiko arkitektura multzo itzela osatuaz. Kupulak **dituen** 65 zentimetroz itxitako fatxadak, eta albo banatoko hegalek, nolabait ere Eskoriala gogorazten digun itxura ematen diote.

Guzti honek Loiolako Iñigo 1491an jaio zeneko dorretxea besakartzen du.

Beltran Yañez de Loiola **Jn-arentzat**, Oñaztarra bera, XIV. mende amaieran eraikitako etxea dugu. Ikaragarriko dorretzarra izan behar zuen, ia bi metrotako zabalera zuten harlanduzko hormaduna.

1457an moztu zuten, Enrique IV.ak emandako agindua jarraiki - **lurraldeko** dorretxe guztiak bezalaxe- eta bertako Jauna, Juan Loiola Andaluziara herbesteratua izan zen. Ignazio Deunaren aitona zena 1460an itzuli zen eta adreiluz berregin zuen etxea, mudejar estiloa jarraiki.

1862an Jesusen Lagundia Loiolako oinetxera **aldatu** zen. **Berehala** ekin zieten Santutegiko lanei eta Carlos Fontana etxegile italiarrak diseinaturiko basilika 1738an zabaldu zen. Bertan arkitekto euskaldunak aritu ziren lanean, Zaldúa eta Ignazio Ibero **esate** baterako; Joaquin Churriguerra ere aritu zen lankidetzan, bera ezaugarritzen zuen berarizko estiloaren aztarna utziaz. Carlos III.ak jesuita guztiak atzerriratzeko emandako aginduak, eraikuntza-lanak 1885-88ra bitartera arte atzeratu zituen, egiten **hasi** zirenetik bi mende berantago arte.

V. mendeurren **dela** eta, santutegia bezalaxe dorretxea ere (17-50) berriki konpondu da eta familiaren bizimodua antze-

mateko moduan konpondu ere. **Behe solai-luan** etxeak zuen gotorleku moldea hartzen da. Lehen solairuak sukaldea biltzen du eta bigarrenak berriez, handiki irudia berreskuratzen du. Azken **solairuari** dario, nabarmen, erligio kutsua, hementxe gauzatu bait zen Ignazio Deunaren bihurra, abegi ikaragarriko erlijio-mugimenduari hasiera emanez.

Santutegi ingurua, Loiolarekiko loturatik jaiotako eraikuntza mordoak betetzen du. Ostatueteak (17-52) azaltzen du ederkien **Basilika** eta Santutegiarekiko menpetasuna.

Errekarte baserriak (17-51), egur eta adreiluzko hormadun eraikuntza politik, Frantzisko Garate Ana; jesuita Dohatsuari buruzko museo txiki bat biltzen du, etxe honetan 1857an jaiotakoa bait dugu bera.

Beste zenbait berriez, erdiaroz geroztik dira, iada, inguru honetako ata1 osagarri-Olatzko basiliza (17-58) dugu hemen aipagai, Azpeitiko antzinakoa izanik, XIII. mende amaierakoa edo XIV.aren hasierakoa. Ama Birjinaren taila gotikoa gordetzen du. Hementxe egiten ziren Gipuzkoako Biltzar partikularrak. Basilizatik tarte berdinerara Sagatzeta baserria (17-4), goi-une batean, eta Egibar etxea ibarrean (17-54) lekutzen (jira). Hementxe hazi eta eman zion bularra Maria Garin amainudeak Ignazio Deunari. Etxeak, gerora guztiz aldatua izan den, Natura, Ekologia eta Ingurugiroari buruzko Museo didaktikoa biltzen du.

San Pedro Egimendi baserrian ere (17-50) izan zen basilizatxo bat, bertatik datorkiolarik izena. Jaso diren XVI. mendeko datuen arabera kapera txiki bat behar zuen izan.

Ibar-mugak zedarrituaz, zelaidi guzietatik at, antzinako hainbat baserri lekutzen dira herrezkadan: Barrenetxe (17-56), Pastelkua (17-57) eta Oiarzabal (17-55). Azken hau XVIII. mendeko baserri ederra da; egun gainbehera dagoenez gero, armarria inguru-ko beste baserri batera aldatu da.

■ URRESTILLA

Izen bereko ibarraren ingurumarietan dago lekuturik, Nuarbe eta Aratz-errika auzoetara zuzentzen den errepidearen ardatz.

Herrigunetik halako gertutasun geografikoa izateak industri-aldiaren eraginpean



Eizmendiko San Miguel basiliza.



Urrestilako Jasokundeko Andra Mariaren eliza.

utzi du, jatorriz landa-eremu honetako hiritar egituraketan berriki aldaketak burutu direlarik.

Entitate honen erdigunerako sarrerak eraikuntza oso nabarmeneko hainbat baserri mugatzen dituzte, Azpeitiarekin bat egiten duen tartean Larrañaga baserria, Antxieta dorretxea, izen bereko baserria eta Ibarluze jauregia lekutzen dira,

Larrañaga baserria (17-53) suak hartuta aurrez desagertu zen beste baten ordez XVII. mendean eraikia da eta baserri-etxeei uztarturik Gipuzkoan ezagutzen direnetan egiturarik bitxienekoa da. Harria baizik erabiltzen ez duelako nabarmetzen da; honek, solairuak elkarren artean bereizteko kupula eta gangak diseinatuz behartu du. Egituraketa Miguel Abaria etxegile ospetsuari zor zaio, penintsulako hainbat lurraldetan, Aragoan batik bat, lanean ibilia.

Antxieta dorretxeak (23-27), er#arokoa, eusten die oraindik ere garai hartako aztarna adierazgarri. Alboan San Martin basiliza izan zenaren hondarrak baizik ez dira gertzen (23-26) gaur egun estalpe bihurtua.

Multzo honetatik gertu Toalle errota (23-25) kokatzen da, oraindik ere badabilena.

Ibarluze etxea (23-27) etxebizitza bakarrak osatzen du Arbiñondo baserriarekin (23-24) batera. Fatxadan ikus daitezkeen leiho bikoitzak, arku zorrotzak e.a. etarako eraikuntza dela ikustarazten digute.

Aratz ibai-arroan, -hemendik igarotzen da izen bereko auzora doan errepide- etxe-sailak askoz ere sakabanatua go ageri dira.

■ HIRIGUNEA

Erdigunea, ohi bezala, eliza inguruan biltzen da. Multzoa, Aratz eta Ibai-Ederren ibai-



Pastelkua baserria.

gurutzearen arabera tajutzen da, aurrez aipatu ditugun komunikabide-errepideen oinarri dena. **Eliza** Josokundearen Amari emana dago (23-21). Egungo etxea Miguel Abariak emandako arauak jarraiki egin zen. 1623 eta 1688 artean **eraiki** da.

Gurutze latiniarrezko oinplanoa, Portada barrokoa, eta kanpandorra **ditu**.

Nausikoa etxea (23-23) eta Zuazola jauregia (23-30) tokiko arkitektura gorena- ren ordezkari dira, XVIII. mendekoak. Multzoa, 1789an egindako iturriak (23-23) baroibiltzen du.

Errota baserria (23-30) eta apaizetxea (23-30) antzin erako eraikuntzen eredu dira.

O Oñaz

Oriolarren zehar historikoki udalerriko gunerik garrantzitsuen **denera**, Oñazera, **iristen** den errepidea jarraitzen badugu Akotegi (23-11) eta Altxasu (23-10) baserri pare- tik igaroko gara, azken hau **1786an** eraikia.

Sailik nagusia baserri **handi** batek, **bere** etxalekuek (23-9), iturriak (23-9) eta San Juan Bataiatzailearen baselizak (23-8) osatzen dute.

Baserriak Oñaz oinetxearen ondokoa behar du izan, Ahaide Nagusien gerrateetan Oñaztarren aldeari izen eman **zion** leinuaren sorburu.

Baseliza tokian antzin-antzinatik izan arren, 1791 eta 1819 bitartean **ia** guztiz berregindako eraikuntza apal bati dagokio.

Inguruetan Garin baserria (17-59) leku- tzen da; hormetan hainbat arku-zorrotz ikus- ten da, baita oraindik erabiltzen den ogi- labea ere.

Aratz-Erreka

Azkoitia eta Zumarragarekiko mugatik gertu, izena ematen dion ibaiburuan dozena erdiren bat baserri biltzen da.

1830 eta 1831 bitartean eta San Isidro- ren omenez eraikitako **eliza** txiki bat du. Erai- kuntza arau neoklasikoetara makurtzen da (22-15).

Baserri arteko eraikuntzetan Xerra base- rria gailentzen da, zerrategi bihurtutako bur- dinola hidraulikoa.

Urrestillatik ibaiaren aurrez-aurre egiten den ibilbidea ere, handiki eraikuntzez zipriz- tindua dago.

Eizagirre multzoa (23-16, 23-17 eta 23- 18) hainbat baserrik osatzen dute eta hauen

artean bi ditugu aipagarrienak: Eizagirre- **Handi** (23-17) armarriduna, eta Uranga baserria (23-12) aurrekoaren azpian, **goi-** mailako eraikuntzak ditugu. Biak dira XV. mendekoak nahiz eta Urangari dagokionez begibistakoa den gerora berrikuntza lanak egin zaizkiola.

NUARBE

Otargintzako artesautza industriak eman dio **ospea** auzo honi, gartzain-zuntzez egindakoak batez ere.

Mandubia eta Beizaramako errepide- en arteko bidegurutze gainean lekutzen da. Ibai-Eder arroan zipriztindurik begi- tantzen zaizkigun eraikuntza batzuek osa- tzen dute.

Hirukoitz **Deunaren** Elizako eraikuntza- lanak (23-36), joan den mende amaieran bukatu zituzten. Badirudi aurrez baseliza bat zegoela bertan, tradizioak dioenaren **arabe-** ra suak erreta desagertu zena.

Inguruetako baserriak gehienek tradi- ziozko arkitekturari eutsi **diote**. Mandubia alderako **bidea** eginaz, Ibai-Ederko urtegia- ren uraska baino lehen **Errasti** baserria (23- 40) lekutzen da, bertan burdinola hidraulikoa lekutu zen garai batean.

Elosiaga

Bidania aldera hartuta Urraki gainera doan errepide ondoan kokaturiko baserri- saila. Esparru honetako erreferentzia- gunea Elosiagako Santa Luzia baseliza dugu (17-78), Erdi Aroko arku-zorrotza du sarreran.

Eizmendi

Eizmendi gainaren mendebaldeko mal- dan sakabanaturik lekutzen diren baserri multzo batek osatzen du entitate hau, Azpei- titik Goiazera Urrakiko gaina zeharkatuaz doan errepidetik gertu.

San Miguel baseliza (23-35) da auzoko testigantzarik adierazgarriena, Santa Luziak bezalaxe, arku zorrotzeko sarrera du, erdi arokoa.

Aranguren (23-33), Mendizabal (23-34) eta Altzaga (23-34) baserrien jatorria ere ertaroan dokumentatu da.



Umabeko zubia.



baseliza.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiak 1992. urtean argitaratutako
GIPUZKOAKO GIDALIBURU HISTORIKO MONUMENTALA

